

**LAN HITZARMENeko MAHAIAREN BERRIAK 6. mahaia**

Atzo, asteazkenean, otsailak 13, Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen Hitzarmen Kolektiboaren negoziazio-mahaia bildu zen berriro. Nobedade aipagarririk izan ezenez negoziazio kolektiboak bere horretan jarraitzen du.

Kristau Eskolak adierazi zuen finantziario publikoa lortzen ez duten bitartean aurkeztutako lansarien taulak mantenduko dituztela. Oraingoz ezin omen dio " zenbateko planteamenduei " erantzunik eman jaurlaritzarekin biltzen ari badira ere. Berriro ere eskatu zuten erreklamazioak ez aktibatzea. Ez omen dute zorrik ordaintzen ez dutelako kolokan jarri nahi sistemaren bideragarritasuna. Mahai gainera ekarri zuten administrazioak aparteko pagari duen jarrera eta baita KE-k emandako erantzuna ere. Hala eta guztiz ere uste dute badaudela hitz egin daitezkeen gaiak; baldintzekin bada ere zabalik daude hitzarmenaren blindajeaz hitz egiteko. Bitxia bada ere, lan hitzarmenaren artikulua batzuk aldatzeko proposamen bat egin zuten, beti ere lan erreformaren ildotik. AICE patronalak adierazi zuen ezinezkoa dela nominak osatzea etengabe – nahiz eta orain hitzarmenak ezarritakoa ordaindu- eta egoera bideragarria egiteko akordio lortzeko prest daude.

Blokeo egoera honetan, mahaiaren dauden erakundeek bere hausnarketa egin zuten. STEE-EILASek adierazi zuen zorren auziak ez duela inolako irtenbide politikorik epe laburrera. Eskatu genien zorra onartzea bide legala agorturik dagoelako. Zorra onartuz gero, epeka ordaintzeaz - ikastetxeen bideragarritasuna kolokan jarri gabe- hitz egin daiteke. Ondoren aurtengo negoziazio-prozesua has daiteke, planteamendu errealistatik abiatuz.

Halaber, galdetu genien plazaratu berri dagoen irakasleak ez diren homologazioaren inguruko epaiaz eta ez zuten baloraziorik egin ez baitzuten sententzia jaso.

Hurrengo bilera martxoaren 7an izango da eta hitzarmenaren artikulua batzuei buruzko aldaketaren gainean hitz egingo da. Ez dugu uste KE-k planteamendu ekonomiko berririk eramango duenik. Informazioa unean unean helaraziko dizuegu.

STEE-EILASek bere kezka adierazi nahi du blokeo egoera dela eta. Beste behin zorraren auziaren konponbidea eta hitzarmen berriaren negoziazioa atzeratu egiten dira irtenbidea itxaropen faltsuak direla eta. Berresten diegu beste sindikatuei plataforma bateratua egiteko aukera.

**Hezkuntzan STEE-EILAS**

<b>ARABA:</b> Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	<a href="mailto:araba@stee-eilas.org">araba@stee-eilas.org</a>
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	<a href="mailto:bizkaia@stee-eilas.org">bizkaia@stee-eilas.org</a>
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	<a href="mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org">gipuzkoa@stee-eilas.org</a>
<b>NAFARROA:</b> Deskalzos, 72 (Ionja)	31001 Iruñea	948212355	948229790	<a href="mailto:nafarroa@stee-eilas.org">nafarroa@stee-eilas.org</a>